

34. zenbakia / 2022ko abendua

# Marmari Leizako aldizkaria




- Garai bateko debekuak
- Gaurko kulturartekotasuna
- Hitanoa
- Mimukai
- eta gehiago...



# LEITZA ASKOTARIKO HERRIA



## zenbaki honetan:



3. or. Aurkezpena

4-7. or. Euskara eta kulturartekotasuna

8-9. or. Whatsappetik Telegram-era

10-14. or. Manex Morenori elkarrizketa

15-17. or. Mimukai, laster ukigai

18-21. or. Jubiloteka

22-23. or. Dena debekatuta dago Leitzaan!!

24-25. or. Hika eta toka. Noka ere toka!

26-27. or. Pantailak euskaraz

28. or. Baietz asmatu!



# Leitza, askotariko herria

**M**ARMARI aldizkariaren 34. zenbakia jaso duzu. Aurreko 33 zenbakietan bezala, oraingoan ere Leitza buruzko jakingarri batzuk ekartzen saiatu gara. Askotarikoak, halaxekoa baita gure errealitatea, alderdi eta ertz asko dituen.

Errealitate konplexu horren adibide argia da Erletako egitasmo baten berri ematen duen artikulua: kulturartekotasuna eta euskara biltzen dituen egitasmoa da, eta bi gai horiek ongi uztartzeko eta euskaraz bizitzen jarraitzeko egiten ari den ahalegina jasotzen du. Eskola-komunitatean garatzen ari den proiektua da, baina komeni da denok horren berri izatea.

Egitasmo horrekin lotutako urrats praktikoa bat azaltzen da beste atal batean, hain zuzen ere eskola-eremurako balio duen bezala bestelako eremu eta eragile batzuetarako ere balio duelako. Whatsapp taldeei buruzkoa da, eta talde horiek kudeatzeko proposamen zehatz bat egiten du.

Oso bestelako atalak ere badaude, noski, eta hor dugu Manex Moreno leitzarrari egindako elkarrizketa. Berriki izan dugu Leitza *La Ermita* pelikularen grabaketa, baita bertan sortutako *Ertzak Leuntzen* dokumentalaren grabaketa eta aurkezpena ere, eta bietan aritu da buru-belarri Manex Moreno. Horren berri eman digu, baita bere ibilbidearen berri ere.

Pantailen munduarekin lotutakoa da beste artikulua bat, baina hau oso ikuspegi ezberdin batetik. Pantailak eta euskara izan ditugu aztergai, eremu horretan dugun zulo ikaragarria nabarmentzeko asmoz.

Eta euskararekin lotutakoa da, halaber, Leitza hitanoari buruzko idatzia. Abenduan argitaratu eta aurkeztu da horri buruz kultur taldeak sustatu eta Fernando Oartzunek idatzitako liburua, eta horren berri jaso du MARMARI zenbaki honetan.

Hitanoari buruzko informazio-iturria, bidenabar esanda, adinekoren artean jaso

du nagusiki liburu horrek, eta adinekoak dira, Ainhoa Ansa aranoarrak gidatzen duen Jubilotekako erabiltzaileak hain zuzen ere, irudiz beteta dagoen atalaren egileak. Izan ere, Jubilotekan landutako mandalak bildu ditugu atal batean, bertan egiten den lanaren erakusgarri.

Eta jubilatuek ere ezagutu ez zuten garai batera eramanez gaitu beste erreportaje batek. 1917. urteko udal ordenantzatik hartutako artikulua batzuk ekarri ditugu, orduko giroaren eta bizimoduaren erakusgarri.

Horretaz guztiaz gainera, aldizkaria osatzeko, Mimukai proiektu ezin interesgarriagoaren berri ematen du Leitza-ko Udalak idatzitako artikulua. Beharretik sortutako egitasmoa da, auzolanean eta parte-hartzearen bitartez landua eta garatua, eta herriari eta herritarrei aukera ugari emanen diena.

Bukatzeke, azkeneko atal gisa, irakurle guztiei zuzendutako ariketatxoa, herriari buruzko gure ezagutza probatzeko eta frogatzeko.



# Euskara eta kulturartekotasuna Erleta ikastetxean

## EUSKARAZ BIZITZEN JARRAITZEKO, KULTURARTEKOTASUNA AINTZAT HARTUTA

“Euskara eta kulturartekotasuna Erleta ikastetxean” egitasmoa 2022-2023 ikasturtean abiatu da. Eta izenak bi ideia horiek bildu nahi ditu: alde batetik euskara, alegia, euskaraz bizitzen jarraitzeko asmoa; eta bestetik kulturartekotasuna, alegia, kultura ezberdineko hainbat kide dituen errealitatea aintzat hartzea.

Bi ideia edo errealitate horiek ongi uztartzeko ahalegina da egitasmoa eta bereziki eskola komunitatearen barruko

komunikazioan jarri du arreta; batez ere familiekiko eta gurasoekiko komunikazioan: eskolak deitutako guraso batzarrek, mailaz mailako bilerak, gurasoen arteko whatsapp taldeak, gurasoentzako oharrak eta komunikazioak...

Lehenago ere eskolak hartu izan ditu zenbait erabaki arlo horretan, eta eman izan ditu zenbait urrats. Orain, egitasmo honekin, azkeneko urteotan aldatuz joan den errealitate bati erantzun eta beste urrats bat eman nahi dute egitasmoan parte hartzen duten eragile guztiek: Erleta eskolak, guraso elkarteak, UEMAK eta Leitzako Udalak.

## EGITASMOAREN AURREKARIAK

Proiektua ez da hutsetik abiatu: UEMAK duen kezka batetik eta UEMAK berak egin duen gogoeta batetik abiatu da, eta Zaldibiako eskolan egindako esperientzia pilotua izan da aurrekari eta erreferentzia hurbilena, han egin baitute lehen-dabiziko proba.

UEMAK duen kezka, zehazki, honakoa da: herri euskaldunetako eskoletan ikasleen eta familien profila aldatzen ari da, baita hizkuntzari dagokionez ere, eta asko dira, gaur egun, euskararik ez dakiten edo erabiltzen ez duten familiatan bizi diren haurrak. Errealitate hori gero eta

hedatuagoa da eta eragina dauka hizkuntzaren ezagutzan eta erabileran. Bai haurren artekoan, bai eskola-komunitatearen barruko komunikazioan.

Kulturartekotasuna ezaugarri gero eta nabarmenagoa da, beraz, eta euskaraz bizitzen jarraitzeko asmoa ere sendoa da. Hori da, beraz, oinarria eta abiapuntua.

Errealitate berri horri erantzuteko abiatu zen egitasmo hau Zaldibian, HUHEZIren aholkularitzarekin (Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea), eta ondoren zabaldu du UEMAk lau herri-tara, horietan ere esperientzia pilotu gisa: Aizarnazabal, Ibarra, Ondarroa eta Leitzara, hain zuzen ere. Guztietan ere HUHEZIren laguntza eta aholkularitzarekin, herri horietako bakoitzean talde eragile bana osatu da, eta bertan parte hartzen dute eskolako zuzendaritzak, gurasoek, UEMAk eta herri bakoitzeko Udalak, gure kasuan euskara zerbitzua-ren bitartez.

## EGITASMOAREN HELBURUAK

Egitasmoaren helburuak, labur azaldu-ta, honakoak dira:

- Euskaraz bizitzea: alegia, orain arte bezala, eskola komunitatearen bizitza euskaraz normal egiten jarraitzea.
- Familia guztiekin komunikazio eta giro abegikorra bermatzea. Baita euskara ez dakitenekin ere.
- Euskalduntasunetik kulturartekotasuna eraikitzea.

Horiek dira helburuak, horrenbestez, eta horiek lortzeko egiten dira egitasmoak dakartzan urrats praktikoak. Izan ere, gogoetaz gainera, egitasmo honetan urrats praktikoak egiten ari dira.

## EGITASMOAREN OINARRIAN DAUDEN IDEIAK ETA ZENBAIT GOGOETA

Esan bezala, urrats zehatz eta praktiko batzuk ematen ari dira proiektuaren barruan, baina urrats horiek egiteko ba-



daude arrazoi batzuk eta bulkada bat. Horiek dira ekimenaren marko teorikoa osatzen dutenak, "oinarri filosofikoa" nolabait esateagatik, eta horiek dira hasiera-hasieratik talde eragileari, eskolako irakasleei eta gurasoei azaldu zaizkienak. Proiektuaren diseinua egin duen HUHEZIk landu eta azaldu dizkie eragile guztiei.

Honatx, labur azalduta, marko teoriko hori osatzen duten ideietako batzuk. Interesgarriak dira gure herrira duela gutxi etorri diren bizilagun berrientzat, baina interesgarriak dira, halaber, lehen-dik ere hemen bizi zen edonorentzat.

• **Euskara hizkuntza minorizatua da eta normalizazio prozesuan dago:** Leitzan euskara da hizkuntza nagusia, eta ofiziala da, gaztelaniarekin batera, baina hizkuntza minorizatua da eta ez dago normalizatuta. Hizkuntza bizia eta osasuntsua da euskara Leitzan, baina gabeziak eta hutsuneak ere ugariak dira, eta hizkuntza osoki normalizatua izateko bide handi bat falta zaio oraindik. Bultzada eta babes handia behar du, oraindik ere.

• **Euskararen etorkizuna:** euskararen etorkizuna ez dago bermatuta. Euskarak, oro har, egoera ahul samarrean jarraitzen du, eta etorkizunean hizkuntza osasuntsua izanzen ote den ez dauka ziurtatuta.

• **Gure herria arnagunea da:** arnaguneak euskararen bizitasun eta erabilera handiko guneak dira, eta ezinbestekoak dira euskararentzat. Leitzara horietako bat da eta horrek, nolabait esateko, ar-dura bat dakarkio herriari.

• **Gure herrian bizilagun berriak:** Leitzatik bertatik beste toki askotara jendea mugitu izan den bezala, gure herrira ere bizilagun berriak etorri dira eta etortzen ari dira. Ongi etorri! Bizilagun berri horiek, normalean, ez dakite euskaraz, eta horrek eraman gaitu bide berriak bilatzera herrian euskaraz bizitzen jarraitzeko eta, aldi berean, denon arteko komunikazioa bermatzeko.

Eta komunikazioari begira konponbidea ez da denok gaztelaniaz egitea, denok (edo gehienok) badakigulako. Gure herria arnagunea da eta izaten jarraitu nahi du, eta horretarako euska-



Ikastetxeei marko teorikoa azaltzeko egindako aurkezpena.

ra erabiltzen jarraitu behar du. Ongi ulertu behar da, horrenbestez, zuzenean gaztelaniara ez jotzea ez dela “errespetu edo heziketa falta”.

• **Zaldibiako esperientziatik etorritako gogoeta bat edo beste:** egitasmoak aurrera egin dezan komeni da konplizitateak ehuntzea, elkar ulertzea... Etorri berrientzat euskara ikastea ahalegin handia da, eta, era berean, hainbat unetan euskaldunarentzat ere gaztelaniaz aritzea esfortzu handia da.

Kultura ezberdinetako kideekiko jarrera abegikorriari eutsiz euskaraz bizitzeko jarraitzeko apustuari eutsi nahi bazaio uneren batean konpromiso batzuk hartu beharko dira. Hori zer den, praktikan? Esate baterako, euskara ez dakitenei (etorri berriari naiz aspaldi hemen dagoenari) euskararen erabileraren aurrean jarrera abegikorra eskatzea; edo,

euskaldunaren kasuan, guraso taldera mezua bidaltzen duenean, Telegram aplikazioaren bitartez egiten duenean, euskara batuan edo zuzen samarrean egiten saiatzea, aplikazioak gaztelanirako (edo beste hizkuntzaren baterako) itzulpena ongi egin dezan. Azken ideia hori hobeki ulertuko da aldizkari honetan bertan Whatsapp taldeak kudeatzeko azalduko dugun proposamena irakurrita.

• **Egoera horretan, zer?** Egitasmo honetan haurrak eta helduak daude inplikaturik, modu eta neurri ezberdinean bada ere, eta biei eskaini edo eskatzen ahal zaie zer edo zer. Esate baterako:

- Etorri berriak euskara ikastera animatu daitezke. 2023tik aurrera, Euskara Mankomunitatearen laguntzari esker, euskara doan ikasi ahalko dute Leitzan errolatutako herritar guztiak.

- Familia etorkin askorentzat seme-alabek familiaren hizkuntza(k) ikastea oso garrantzitsua da, eta badute horrekiko kezka. Garrantzitsua da eskolak eta herriak haien hizkuntzekiko begirunea modu argian adieraztea.
- Euskaldunak herriko haur guzti-guztietei euskaraz egin beharko lieke, baita atzerriko jatorria duten familietakoa haurrei ere. Bertakoak dira, euskaldunak dira, eta euskara da, besteak beste, herriko bizitzan txertatzeko modu eraginkorrenetako bat.
- Eskolako hizkuntza ongi ikastea oso garrantzitsua da eskolako materialak ikasteko.
- Bestelako aukerak ere baliatu behar dira: eskolaz kanpoko jarduerak, telebista, liburuak, komikiak...
- Garrantzitsua da familiek euskararekin jarrera abegikorra adieraztea umeen aurrean.

### • Garrantzitsua da umeek etxeko hizkuntza ongi ikastea eta erabiltzea.

- Umeen garapen kognitiborako garrantzitsua da eta, horretaz gain, bigarren hizkuntzak ikasteo oinarria da.
- Haurraren identitatearen zati bat da.
- Familiarentzat eta komunitate osoarentzat baliabide bat da.

### • Kontuan hartzeko zenbait alderdi: prozesu honetan, esandakoaz gain, badira kontuan hartu beharreko bestelako zenbait alderdi:

- Prozesu bat da eta, espero litekeen moduan, prozesu horrek gorabeherak izan ditzake.
- Ez dago “konponbide perfekturik”. Urratsak eginez eta irtenbideak probatuz joanen gara, ona eta eraginkorra denari eutsiz eta hobetu litekeena hobetuz.
- Egonezinak ere agertu litezke, eta horiek kudeatzen asmatu behar da. Horretarako, besteak beste, garrantzitsua izanen da jarrera adeitsuak sustatzea.

## EGITASMOAREN ALDERDI PRAKTIKOA

Aurrerago esan dugun moduan, egitasmo honek alderdi praktikoa dauka, eta eskola komunitatean hizkuntzak kudeatzeko irtenbide praktikoa bilatu dira: gurasoekin egiten diren batzar orokorretarako; gurasoekin egiten diren mailaz mailako bileretarako; familiei bidaltzen zaizkien komunikazioetarako; gurasoen whatsapp taldeetarako; gurasoen elkartearen bileretarako...

Lantzen ari diren edo landuko diren irtenbide praktikoa guztiak xehe-xehe azaltzen hasi gabe, horietako bi aipatuko ditugu, adibide gisa:

### • Bileretan hizkuntzen erabilera kudeatzeko sistema, Telegram aplikazioaren bitartez:

Elebidunak eta erdaldunak elkartzen diren bileretan modu ezberdinak erabi-



li izan dira hizkuntzaren erabilera kudeatzeko: dena bi hizkuntzetan egin; euskaraz egin eta ondoren laburpen bat gaztelaniaz; euskaraz egin eta zenbait xuxurlari jarri erdaldunen ondoan haiei itzulpena egiteko...

Egitasmo honen barruan beste modu bat hautatu da, denontzat aurrerapausoa delakoan. Hauxe da: norberaren telefonoan Telegram aplikazioa deskargatuta (doan eskuratzen da eta Whatsapp-ek bezalatsu funtzionatzen du), batzar edo bilerarako kanal bat sortzen da, eta esandakoa ulertzeko itzulpena behar duenak aurikularrak jantzi eta kanal horretan sartu, ez du besterik egin behar. Bileran esaten ari dena gaztelaniaz entzuten du aurikularretatik, bertan dagoen itzultzaile baten ahotik. Erraza, praktikoa eta eraginkorra da sistema. Nahikoa izanen da pertsona bakar bat itzultzaile lana egiteko, eta euskaraz ez dakienak egin beharko duen bakarra aurikularrak jantzi eta kanalean sartzea da.

Euskaraz egin ahaliko da bilera, beraz, normaltasun osoz, norbait bertan esandakoaz jabetu gabe geldituko den kezkarik izan gabe, Telegram bidezko itzul-

penak bilera jarraitzeko aukera emanen baitie denei.

### • Whatsapp taldeak Telegram talde bihurtu.

Telegram aplikazioa Whatsapparen antzekoa da, berdin funtzionatzen du, baina abantaila bat dauka: testuen itzulpenetarako aukera erraz bat dauka. Honen inguruko argibideak Marmari aldizkari honetako beste artikulu batean eman ditugunez, horra gonbidatu nahi dugu horren berri izan nahi duena. Jakina, edozein whatsapp talderako balio duen proposamena da, ez dago eskola komunitatera mugatua.

Aipatutako bi ekintza edo proposamen horiek, esan bezala, artikuluan zehar azalduko gogoeta eta “filosofia” horrekin lotuta daude, eta horren guztiaren ondorio praktikoa dira. Urrats jakin batzuk dira, gehiago ere emanen dira, eta aurrera joan ahala ikusiko da hobetzeko alderdirik badagoen, zer eta nola hobetu daiten. Espero dezagun ahalegin partekatutako honen ondorioz, pixkanaka, egitasmoak ezarritako helburuetara hurbiltzea eta denontzat irabazi bat lortzea.

# Whatsappetik Telegram-era



## Taldeetan euskaraz, gaztelaniaz, nahas-mahas... Buruhausteak saihesteko proposamen bat

**W**hatsapp taldeak eguneroko ogia bihurtu zaizkigu, gehienok horietako mordoxka batean sartuta baikaude, arrazoia edozein dela ere: lana, lagunak, familia, eskola, sindikatu, elkarte, ikastaroa, proiektua...

Jakina, Whatsapp taldeak elkarren berri izateko direnez, hizkuntza da horretarako erabiltzen dugun tresna. Eta hizkuntzaren erabilera da, hain zuzen ere, askotan buruhausteak sortzen dituen. Izan ere, maiz gertatzen da taldean euskaraz ez dakien norbait egotea, eta horren aurrean jokatzeko modu ezberdinak ikusten ditugu: mezuak euskara hutsez bidaltzea; mezu bera bi hizkuntzatan bidaltzea; mezuak gaztelaniaz bidaltzea; gaur modu batean eta bihar beste batean bidaltzea; hizkuntza batean hasi eta beste batean bukatzea...

Eta askotan hauxe gertatzen da, esate baterako: mezu trukea euskaraz hasi, norbaitek gaztelaniazko erantzuna eman, edo norbaitek ulertzen ez duela esan, eta hortik aurrera mezu-kate osoa gaztelaniaz egitea, euskara bazter utzita, taldeko kide gehienok euskaldunak izan arren eta taldekideen arteko ohiko hizkuntza euskara izan arren.

Eta goera nahasi horrek, bistan denez, egonezina eta deserosotasuna sortzen du. Erdaldunak mezu bere hizkuntzan bidaliko du, ez baitaki besterik, baina agian deseroso sentituko da eus-

kaldunak gaztelaniaz egitera bultzatzeagatik. Edo agian ez, noski, izanen baita horrek deseroso uzten ez duenik ere.

Eta euskalduna ere, jakina, askotan deseroso sentitzen da: gaztelaniaz egitera “behartua” sentitzen delako, edo gauza bera bi aldiz idaztera behartua; edo, euskara hutsez eginda, kontziente delako baten batek ezinen duela zuzenean mezua ulertu...

Eta, zer esanik ez, euskaltzalearentzat behintzat, etsigarria izaten da taldeko kide gehienak euskaldunak diren egoera batean Whatsappeko elkarrizketak oso-osorik gaztelaniara lerratzea.

Whatsapp taldean zein hizkuntza erabili norberaren hautua da, horretarako eskubidea badugu, noski, baina komenigarria izan liteke horren inguruko gogoeta pixka bat egitea, horretan ere gaztelaniak jan ez gaitzan. Eta, gogoetaz gainera, askoz hobe irtenbide praktikoak bilatzen baditugu.

Irtenbide horietako bat, batzuetan erabiltzen dena, itzultzaile automatikoa da: gaur egun badaude itzultzaile automatiko eraginkor askoak, mezuak ongi samar itzultzen dituztenak. Nahikoa da Whatsappeko mezua kopia eta horietako batean sartzea eta itzulpena eman digu. Hartara, erdaldunak euskarazko mezua ulertu nahi badu, kopia eta hor sartzea besterik ez du egin behar. Itzultzaile automatiko horiek ez dira perfek-

tuak, baina lagundu dezakete eta aukera bat dira. Hauek dira horietako batzuk: <https://elia.eus/itzultzailea> eta <https://www.euskadi.eus/itzuli/>.

Baina hori baino eraginkorragoa, errazagoa eta erosoagoa da gaur hemen azaldu eta proposatu nahi dugun aukera: Whatsapp-etik Telegramara pasatzea, hain zuzen ere.

### WHATSAPPETIK TELEGRAMERA

Telegram Whatsappen antzeko aplikazio bat da. Doan deskargatu daiteke, eta Whatsappen antzera funtzionatzen du.

Zein da, beraz, aldaketa hau proposatzeko arrazoia? Bada, Telegram aplikazioak itzulpenerako tresna bat daukala, eta horren bitartez jasotzen ditugun mezuak, ukitu bakarrarekin, hainbat hizkuntzatar itzulita ikus ditzakegula.

Alegia, testuak kopiatzen eta itzultzaileetara eramaten ari gabe, zuzenean, jaso dugun mezua behatzarekin ukituta eta itzultzeko aginduta, mezu hori bera zerrendan agertzen diren hizkuntzetako edozeinetan irakur dezakegu.

Zer dakar honek? Bada, guk mezua euskaraz bidali eta jasotzailea erdalduna baldin bada, mezuaren gainean behatzarekin ukitzen baldin badu (mezu hautatu gabe) “itzuli” aukera aterako zaio. Horri eman eta testu hori gaztela-



niaz ikusiko du. Edo ingelesez, katalanez, arabieraz, ukraineraz, frantsesez...

Inork ez du bieran edo gaztelaniaz idatzi beharrik izanen erdaldunak mezu hori ere uler dezan, haren esku baitago itzulpena erraz jasotzea. Hori bai, Telegramek itzulpena ongi egitea nahi badugu, komeni zaigu batuan idaztea, aplikazioak oraindik ez baitu Leitzako euskara ikasi.

Orain arte inork gaztelaniaz edo "gaztelaniaz ere" idatzi beharra sentitzen baldin bazuen, modu honetan "zama" hori gainetik kendu dezake lasai. Lehendik ere euskaraz aritzeko ohiturari eusten zionak, jakina, berdin-berdin jarrai dezake.


### ZEIN DIRA URRATSAK, BERAZ? HAU EXEK:

1. Dena delako taldean Whatsappetik Telegramera pasatzea adostu: egin beharreko lehendabiziko gauza da. Taldeko kideen artean adostu daitekeen erabakia da.



2. Taldekide guztiek Telegram aplikazioa deskargatu: erraza da, berehala egin daiteke, zailtasun teknikorik ez dauka, eta doan egiten da, aplikazioak deskargatzeko ohiko moduan.

3. Telegram aplikazioan itzultzeko tresna aktibatu,:


- Hiru marratxoaren ikonotik ezarpenetara joan, eta bertan sartu:




- Ezarpenen barruan, "Hizkuntza" tresna hautatu:




- Hizkuntzaren leihoan gaudenean, goian, "Erakutsi itzultzeko botoia" aktibatu.



- Zein hizkuntzatan jaso nahi dugu itzulpena? Hura hautatu, zerrendatik. Euskaldunok euskara hauta dezakegu, eta gaztelaniaz jasotzen ditugunak euskarara itzuliko dizkigu aplikazioak. Eta erdaldunak dagokion erdara hauta dezake: gaztelania, alemana, arabiera...




4. Hori guztia behin bakarrik egin behar da. Hortik aurrera, besterik gabe, mezua jasotzen dugunean, itzulita ikusi nahi badugu behintzat, mezua ukitu (ukitu hutsarekin nahikoa da, mezua hautatu gabe) eta agertuko den leihotxoan itzultzeko agindu.



Adibidean jarri dugun horretan, babilzko erdaldun baten Telegrama ikusten dugu, euskaraz jasoko lukeen mezua aplikazioak nola erdaratuko liokeen ikusteko.

Bestalde, Telegram aplikazioa bera ere euskaraz instalatu dezakegu. Horretarako, telefonoa bera euskaraz konfiguratuta eduki behar da eta, behin horrela daukagula, helbide honetan klikatu: <http://t.me/setlanguage/eu-beta>



# Manex Moreno soinu eta irudi artean

«Lana edukiarekin egitea gustatu zait beti, mezu batekin»

## LABURREAN:

**Izen-abizenak:** Manex Moreno Uharte

**Jaiotze-data:** 1997-05-15

### Ikasketak:

- Ikus-entzunezkoetarako eta Ikusizunetarako Soinua goi mailako zikloa Erandion, Tartanga Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuan.
- Ikus-entzunezko Komunikazioa gradua, Mondragon Unibertsitatean.
- Master en Teoría y Práctica del Documental Creativo, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan.

**Zaletasunak:** kirola eta musika, nagusiki. Azken aldian eskalatzen, eta urte askoan Aurrerako futbol taldean. Baita lagunekin egotea eta bidaiatzea ere.

**Bizitokia:** Leitza.



■ **Ikasketei buruz galdetzen hasiko gara. Ikus-entzunezko komunikazioaren inguruan egin dituzu nagusiki baina, horretan hasi baino lehen, horren inguruko zaletasunik ba al zenuen?**

Ez, deus ez, ez nuen zaletasun berezirik. Aita etxean beti izan da erreferentzia, arte ederretako irakaslea izan da eta beti joan izan gara erakusketaren bat ikustera, edo museoak-eta bisitatzera. Bera kamerazalea da, argazki kamerarekin batez ere. Baina horrek ez ninduen behin ere gehiegi erakarri. Musikak bai, ordea. Beti. Solfeoa ikasi,



pianoa eta gitarra jo izan ditut, taldearekin ere zaletasun horrekin jarraitu dugu, eta iritsi zen momentu bat, Batxilergoa eta selektibitatea juxtu-juxtu gainditu nituen, eta ez neukan batez besteko notarik kristoren karrera ikasteko, ezta gogorik ere. Ikasle txarra izan naiz beti.

Etxean hitz egin genuen eta goi mailako ziklo bat ikastea planteatu genuen. Musika gustuko nuen eta bi urtez nire zaletasunarekin probatzea erabaki genuen. Bide batez, bi urte eginen nituen etxetik kanpo bizitzen, denetik ikasten. Bilbora joan nintzen soinu ikastera, hartu ninduten eta han oso pozik egon nintzen. Uda hartan, gainera, soinu teknikari lanetan aritu nintzen.

Baina soinu teknikari lanetan aritzea ezinezkoa zen, ez dagoelako azpiegitaririk, eta ikus-entzunezkoen karreran sartzea erabaki nuen. Aurkikuntza bat izan zen. Soinuaz bai baina bideoez deus ez nekiela sartu nintzen karreran eta zorte handia izan dut, oso inguru ona izan dut eta asko esperimentatu eta asko ikasi nuen.

Bestalde, lana edukiarekin egitea gusatu zait beti, mezu batekin, ez zait gusatzaten mezurik gabeko Youtubeko bi-

## «Erabaki nuen dokumentalgintzan sartzea, normalean helburua izaten delako mezu bat transmititzea»

deoak egitea, esate baterako. Soldatapekoa baldin bada bai, baina nire proiektuetan ez zait gustatzen mezurik ez izatea. Eta orduan erabaki nuen dokumentalgintzan sartzea, normalean helburua izaten delako mezu bat transmititzea. Horregatik joan nintzen dokumentalgintzako masterra egitera Bartzelonara.

Musikan oinarri bat baneukan, baina azkeneko zazpi urte hauek espezializazio handi bat izan dira, batez ere proiektuak egiten, bideogintza egiten. Dirurik ukitu gabe, hori egia da, baina oso inte-

resgarria izan da. Karreran oso lantalde ona izan nuen, eta Bartzelonara nahikoa oinarri onarekin iritsi nintzen, edo asko ibilia behintzat, ez bainaiz etxean gelditzea.

■ **Masterra bukatu eta berehala *La Ermita* pelikulan lan egiteko aukera iritsi zitzaizun, herrian bertan. Nondik etorri da aukera hori? Eta nola has daiteke mundu horretan sartzen?**

Zorte kontu handia dago hor. Egia da, hala ere, behin hor zaudela erakutsi egin behar duzula balio duzula, bestela azkar uzten zaituzte iskin batean eta ez zaituzte berriz deituko. Baina zirkuluak oso itxiak eta pribatuak dira eta ekoiztetxeek ez dute denbora galtzen deialdiak egiten eta curriculumak eskatzen. Ongi funtzionatzen duten norbait azkar nahi izaten dute.

Nik masterra bukatu berria nuen, urte osoan zehar aritu naiz *Ertzak leuntzen* eta beste dokumental batean lanean, *El barco que atravesaba la montaña*. Uztailean lasai egon eta irailean berriz hasiteko asmoa neukan, eta Leitzako alkatuek deitu zidan. Hemen pelikula bateko produktiorako bertako norbait behar

zutelako deitu zioten, lokalizazioetarako, eta berak esan zien bertan bazela ikasketak eta esperientzia zituen herri-tar bat, eta izena eman zien.

Lan erraza izanen zela uste nuen, beste dokumentalarekin batera ongi aritu ahal izateko modukoa, ekoiztetxeokak ere hala esan zidan, “erraz eginen duzu...”. Gero, lanaren tamaina ikusi nuen gehixeago apuratu nintzen.

Zortea izan nuen, profil jakin bat behar zutelako eta nik hori betetzen nuen.

#### ■ Zein da ekoiztetxe hori?

Bi ekoiztetxe elkartu dira. Bartzelonako Filmax, *Ocho apellidos vascos* egin zue-na, eta Bixagu, Zarauzkoa.

#### ■ Eta La Ermita pelikulan, zehazki, zein izan da zure funtzioa edo lana?

Pelikulan ikusgarriena filmaren grabazioa bera izaten da, baina horren aurretik lan batzuk egin behar dira aurreko asteetan, dena prestatzeko. Niri zerrenda bat bidali zidaten, eta egun bakoitzean egin behar zena jartzen zuen bertan. Esate baterako: “egun honetan plazan grabatu behar dugu eta Etxetxurin argi bat jarri nahi dugu, edo udaletxeko bal-koian zerbait jarri nahi dugu...”.

Nire lana zen grabazio aurretiko lan guzti horiek bideratzea, baimenak eskatzea, prestatzea... Eta ni bereziki lokalizazioetan zentratuta nengoen: hilerrian egin behar baldin bazen, adibidez, hilobi horren familia abisatu behar nuen, baimena eskatzeko. Eta horrela lokalizazio guztiekin, baimena eskatzeko edo, besterik gabe, abisatzeko.

Nik lan handiena grabaketan hasi aurreko hiru asteetan izan nuen, baina grabaketako astean ere hor egon behar nuen, edozein momentutan sor litezkeen beharrei erantzuteko. Produktzioan bazekiten eskakizun asko zegoela eta horregatik nahi zuten bertako bat lan horretan.

#### ■ Zer erakutsi dizu zuri pelikulako grabaketan egindako lan horrek?



## «Eta lan hau eginez ikasten da, baita esperientzia handiagoa duenari aditzen ere»

Nire bizitza osoan aplikatu dezakedan zerbait. Baliteke zu ikasle perfektua izatea, matrikulak ateratzen dituen edo oso diziplinatua dena, baina gero hori ez badakizu praktikan jartzen... Eta ez dut esan nahi horrek ez duela deustako balio; balio du, agian arlo akademikoan oso ona zara, baina gero horrelako lan batean ez badaukazu inizatiba edo sormen hori...

Nire kasuan, lana ez zen, besterik gabe, joan hara eta hau edo bestea eskatu. Eskatzeko modua ere oso garrantzitsua da. Eduki behar duzun profila nahikoa zabala da, ongi azaltzen jakin behar da eta entzuten ere jakin behar da.

Bestalde, lan honetan askotan errit-

moa oso altua da eta estresa ere sortzen du, frenatzen ere jakin behar da. Eta lan hau eginez ikasten da, baita esperientzia handiagoa duenari aditzen ere. Hori unibertsitatean ez dizute erakusten normalen. Mugituz ikasten da.

#### ■ Kanpotik ikusita mundu “glamurosoa” ematen du zinemagintzak, dena ederra, baina izanen du bes-telako aldea ere: grabaketa ordu asko, agian zenbaitetan astun samarra; zailtasun eta arazo teknikoak; ustekabeak... Ekoizpen lan handia dago atzean, ikusten ez diren hamaika gauza eta, noski, hamaika ordu. Ondoren filma edo dokumental moduan ikusten den horren atzean zer dagoen azaldu dezakezu?

Kanpotik badauka exotikoa den zerbait, normala den bezala, baina bokazionala izan beharra dauka lan honek, nire ustez. Lanaldi oso luzeak dira, badago dirua irabazten duen jendea baina jende askori, gehien-gehienari, orduen kalkulua egiten hasiz gero, ateratzen zaio orduko hiru edo lau euro irabazten dituela. Soldatak ez dira baxuak baina ordu kopurua oso altua da. Zailtasuna izan behar da,

ilusioa, bestela proiektu baten ondoren jada lehertua zaude.

Hori aplikatuko nuke sormeneko proiektu guztietara, ez bakarrik zinemagintzara. Zineak alderdi glamuroso hori dauka jende famoso eramaten duelako, baina jende famoso horrek aitortza hori eramateko jende askok egin behar du lana eta askotan ez da baloratzen.

■ **Pelikula grabatzera kanpotik etorritakoez ari gara. Bertara begiratu, herritarren eta auzokoen jarraera zer moduzkoa izan da?**

Oso ona, ikaragarria. Ez dakit hemen zenbat eskakizun zeuden, zerrenda bat zegoen, 200 izanen ziren gutxienez. Argi-teknikariak nahi duena, soinu-teknikariak nahi duena, edo kamerak... Askotan ekoizleek goitik jotzen dute, gero eskatutakoaren erdia lortzeko itxaropenarekin. Eskakizun asko ziren, beharrak ere asko zirelako. Eta esan zidaten, “dossierrean jartzen duzunaren erdia lortzen baduzu, bikain, izugarria izanen da”. Eta azkenean ia % 100 lortu da. Baina ez ni horretan ona naizelako, baizik eta herriak baduelako, ez dakit zergatik, predisposizio ikaragarri bat. Musunzarren barruan egon gara grabatzen, Etxetxurin fokuak jartzen, Larrean ere bai... Inongo arazorik gabe leku guztietan... Espazio sentisibleak ere bazeuden, Eliza utzi ziguten arazorik gabe, hilerria... Udalak eta udal langileek ere asko lagundu dute.

Herriak badauka erakarpen estetiko bat, eta normala da polita delako, baina herriak berak ere badauka laguntzeko eta entregatzeko gaitasun oso handia, eta hori gabe ezin diozu horrelako produkzio bati aurre egin, azkeneko hau oso exigentea izan delako herriarentzat.

■ **Horrek azalduko du, agian, Leitzan hainbeste aldiz izatea pelikulak egiteko lokalizazioa. Hor ditugu, La Ermita pelikula honetaz gainera, La buena nueva, Ocho Apellidos vascos eta Dantza film ezagunak, zati batean behintzat hemen errodatuak. Herria-**

**ren estetikak eta jendearen jarrerak izanen du zerikusia.**

Zalantzarik gabe. Plazak, esate baterako, joko handia ematen du. Horrelako espazio zabal bat, baita teknikoki ere, plano orokor bat egiteko oso egokia da, eta plano orokorrak oso espektakularrak dira. Plazan saltsa handi bat antolatua baduzu, *La Ermitako* parrandako eszenan bezala, edo *La buena nueva*ko planoak, eta udaletxe oso handia baldin badaukazu eta inguruan harrizko etxe handi horiek, garai batekoak eman dezaketenak. Eliza ere ikusgarria da, kasiko batean bezala... Hori guztia oso erakargarria da eta gainera atrezzoan edo dena delakoan diru pila bat aurrezten duzu. Lokalizazioak ere oso bertan daude eta garraioa asko errazten du.

Hori alde batetik. Bestetik, azkar zabaltzen da herriaren inplikazioa zein izan

«Ez da kasualitatea azkeneko 10-15 urteotan produkzio handiko eta exigenteo lau pelikula hemen grabatu izana»

den. Udalak eskura zuen guztia eman dio, asko inplikatu da, neroni ere asko inplikatu naiz, jendea ere bai, herritarrak... Ez da kasualitatea azkeneko 10-15 urteotan produkzio handiko eta exigenteo lau pelikula hemen grabatu izana.

■ **Pelikularen egileak, beraz, pozik egonen ziren. Zer irudi eraman ote zuten Leitzako herriaz?**

Oso ona. Pelikula grabatzeko tokiaren

bila ari zirenean, hemen inguruan begiratzen ari ziren, eta lehendik ere hemen grabatzen arituak zirenek gomendatu zuten Leitzan. Ahoz ahoko mundu bat da hau, eta horrela zabaltzen dira gauzak.

Hona etorri, hemen egin zuten, eta oso pozik gelditu ziren, baita herriaren harrerarekin ere. Flipatu egiten zuten. Orain komeriak, “ze gaizki ohitu ginen Leitzan...”, beste toki batzuetan zailtasun handiagoak izaten baitituzte.

■ **Aipatu dugu Leitzan zenbait pelikula grabatu direla. Herriari zer ekartzen dio edo zer ekarri diezaioke pelikulak bertan grabatzeak?**

Nik ikusi dudanagatik, grabazioen egunetan jendea nekatzen ere hasten da, egunero 200etik gora bokadillo egin behar dira... Paliza handia izaten da, baina paliza horrek irabazi ekonomiko bat ere ekartzen du, normalean izaten ez dena. Horretaz gain, uste dut herriari poztasun bat ere ematen diola, komunikatiboki ere presentzia, komertzioentzat ere irabazi bat, turismoa, aste horretan egiten den gastua handia da... Eta gure egoa mantentzeko ere balio digu. Egia da paliza handia dela, baina aste-bete ongi aguantatu daiteke.

■ **Berriz ere arreta zugan jarrita, pelikularen ekoizpenean parte hartzeak galaraziko ote dizu gero pelikula berdin ikustea? Eragiten ote du ikusteko momentuan?**

Nik parte hartzen dudan lan guztiak beste begirada batekin ikusten ditut. Zorionez, nik proiektu honetan neukan egitekoa oso espezifikoa zen, hori egin nuen, eta gainerakoan, proportzio handi batean, ez dakit zer grabatu zen eta zer pasako den.

Nik grabatzen dudanean, ordea, ez zait gustatzen proiektzioaren momentuan egotea, presio hori... Momenturo detaile honi edo hari begira zaude, edo jendearen erreakzioa zein den, zer irudituko zaion. Grazioso edo triste izan daitekeen momentu bat heldu da eta

agian jendearen erreakzioa ez da hori. Defentsiban bezala zaude.

■ **La Ermita filmaz gainera, Leitzan bertan sortutako Ertzak leuntzen dokumentalean ere aritu zara, zuzendari lanetan. Oso bestelako esperientzia izan da, ziur asko. Nolakoa izan da?**

Oso ezberdina izan da. Askotan gauza bat egiten dugu, eta momentu hori immortalizatu nahi izaten dugu. LHL taldeko kideak etorri ziren, bideo asko zituztela eta elkarrizketa bidez-edo jaso nahi zutela ibilbide hori, batez ere parte hartu zuen jendeari eskertzeko helburuarekin.

Denon artean, pixkanaka-pixkanaka, denon gustukoa izan den planteamendua osatuz eta finduz joan ginen, dokumentala osatu arte. Eskertzeaz gainera, erabaki genuen dokumentalak mezu bat eman behar zuela, eta horrela egitea erabaki genuen, txanponaren beste aldean dagoen jendearekin ere egonez: Okillekoekin, Lezearekin edo Udaneren familiarekin...

Zailtasun batzuk izan genituen ni orduan Bartzelonan beste dokumental batekin ari nintzelako, eta epeak atzeratu behar izan genituen. Apirilera zen hasieran, eta azarora eraman genuen azkenean.

Beste proiektu mota bat izan da. Laguntzaile batzuk izan ditut puntualki, baina niri egokitu zait denbora osoa lanean buru-belarri aritzea. Oso ongi aterra da eta ikasgai bezala ikaragarria izan da. Bai profesionala eta bai pertsonala.

Harrera oso ona izan da, gainera, eta denak oso eskertuta agertu dira.

Gero, egia da, urte hau oso espezifikoa izan da dokumentalgintzan eta ondorioz oso jarria nengoen. Zailtasun guztien gaineratik uste dut mezu bat ematea lortu dugula, eta oso pozik nago.

■ **Eta, orain arte probatu duzun guztiarekin, zinemagintza edo dokumentalgintzako zein egiteko edo arlo**



## «Ertzak leuntzen dokumentala oso ongi atera da eta ikasgai bezala ikaragarria izan da»

### hautatu edo lehenetsiko zenuke?

Azken batean, dena egin beharra daukazu, gero zerbait egiteko. Abaniko bat daukazu, eta eskatzera datorrenak esan behar dizu zu zertan nahi zaituen.

Niretzako, hala ere, kuttunena soinua izan da beti. Azken batean musika taldearekin ere urte askoan ibili gara bueltaka eta nire ibilbidearen hasiera horrekin izan zen. Batez ere postprodukzioan sentitzen naiz oso eroso. Erraztasun eta askatasun handia daukat batez ere belarria oso fina dudalako. Urte askoan garatu dudalako, besteak beste. Beraz, zerbait aukeratu beharko banu, soinuaren postprodukzioa aukeratuko nuke.

Soinua da nire gustukoena, beraz, baina zirkunstantziak bultzatuta irudian ere espezializatzea egokitu zait, eta iru-

dia ere, nahiz eta hain seguru ez sentitu, aukeratuko nuke.


■ **Azkenik, eta elkarrizketa bukatzeko, arlo honetan ikusten al duzu zeure burua, etorkizunean?**

Galdera zaila da hori. Hor bi egoera daude: zorte handia baldin badaukazu, zuregana etortzen dira eskatzera, produktu eta aurrekontu batekin. Horrelako zerbait berriz suertatuz gero zalantzarik gabe baldintzak baloratuko ditut eta erakaragarria izanen da.

Eta, bestalde, zuk gogoia baldin baduzu zure proiektuak sortzeko, hori oso zaila da; dirulaguntzak behar dituzu, jendea behar duzu... Nik hemen ez daukat azpiegiturarik oraindik, eta printzipioz orain ez dut baloratzen horrelako deus egitea. Eta gero, zinemagintzan, horrelako ekoiztetxe batek berriz deituko babil, zalantzarik gabe baietz esanen nuke.

Ateratzen diren lantxoei baiezkota eman, urte osoan nolabaiteko egonkortasuna lortu arte. Hasieran gutxiarekin hasten zara eta gero deitzen dizute gero eta gehiago, eta hori izanen litzateke helburua.

Baina auskalo, agian hemendik urtebetera dena aparte uzten dut. Ez dut gehiegi pentsatzen etorkizunean. Momentuko beharrak erantzun eta agobioak saihestu, ahal bada.



# MIMUKAI,

## laster ukigai

### AURREKARIAK

MIMUKAI, proiektu eta egitasmo gehienak bezala, beharretik sortu zen. Zehazki, gure herrien bizirauteko beharretik eta horientzako garapen eredu berrien premiatik, izan ere, pandemiaren garai ilunenean forma hartzen hasi baitzen proiektua.

Garai zail horietan, oztopoen gainetik, auzolana eta parte-hartzea gailendu ziren: gure eskualdeko 11 udalerritan, 200 pertsona baino gehiagok parte hartu baitzuten proiektu honen definizioan, herriz herri egindako 8 saioetan.

Lehen aldia izan zen (guk dakigula), tokiko garapenari buruz, eskualde mai-

lan eta sektore sozial eta ekonomiko guztiak inplikatur, honelako parte-hartze prozesu sakona burutu zena eta, esan beharrik ez dago, ekarpen oso aberasgarriak jaso ziren.

Ilusionagarria da gure eskualdean etorkizunera begiratu eta tokiko garapena elkarrekin planifikatzeko ahalegina egitea.

Iraganean, zerbitzu publikoak eskaintzeko elkartu izan dira eskualdeko hainbat udal, mankomunitateak, partzuegoak eta bestelako entitateak sortuz.

Parte-hartze prozesu honetan, aldiz, tokiko garapena bultzatzeko elkartu ziren, balio jakin batzuetan oinarrituta gainera: ikuspegi jasangarri batetik, herritarren iritzia jasoaz, ekonomia sozial eraldatzailea oinarri izanik eta bertatik bertara egokitutako irtenbideak eraikiz.

Horri esker, esan daiteke MIMUKAI jaio aurretik hasi zela bere sarea ehuntzen, fisikoki deus izan aurretik. Eta sare hori, ondoren gauzatzen hasi den proiektuaren zimendua izan dela.



Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren ordezkariak Mimukairen lokaletan.

## BAINA, ZER DA ZEHAZKI MIMUKAI GARAPEN ETA TRANSFORMAZIO ZENTROA?

Ez da erreza proiektua esaldi gutxitan definitzea. Izan ere, lantzen dituen gai sakonak (tokiko garapena, ekintzailtza, saretzea...) eta elkartzen dituen elementuen aniztasunak (garapen agenteak, eskualdeko udalak, eragileak, ekintzailak...) alde anitzeko proiektua osatzen baitute. Abstrakzio maila hori, beraz, MIMUKAIren ezaugarri bat da, baina baita proiektuaren aberastasuna eta potentzialaren seinale ere.

Horregatik, erantzun laburra honakoa litzateke: MIMUKAI, tokiko ekonomia sustatzeko bultzada publikoaz sortu den proiektu komunitario bat da. Arazo indibidualei irtenbide kolektiboak eskaintzen ahaleginduko dena.

Orokortasun horretatik zehaztasunetara salto eginez, ordea, proiektuaren nondik norakoak honela azaldu litezke: MIMUKAI hasiera batean Leitzako Udalak eta Cederna-Garalur elkarteak bultzatu duten baina Larraun-Leitzaldea eskualde osoari irtenbide eta dinamika berriak eskaintzeko anbizioa duen proiektua da. Izan ere, Larraun-Leitzal-

dea eskualdeko 11 udalek bere babesa adierazi diote proiektu honi.

Azken finean, eskualdeko tokiko entitate publikoak, enpresak, dendariak, ekoizleak, garapen agenteak eta bertako ekonomia bultzatzeko ezinbestekoak diren elkarteak eta agente guztiak elkartuko dituen topagune bat izango da, proiektu berriak martxan jartzen laguntzeko, elkarlana bultzatzeko eta zubiak eraikitzeko. Sinergia berriak sortu nahi dira, honelako proiektu komunitarioek eragin biderkatzailea izaten baitute.

Beraz, proiektu hau, proiektu berriak aurrera ateratzean datza, elkarlana bultzatuz, formakuntza sustatuz, espazioak eskainiz, saretzea eta irtenbideak landuz.

### **BI FASE, BI ESPAZIOTAN BANATUTA**

MIMUKAI proiektua bi fasetan diseinatuta dago, eta fase bakoitzak bere espazioa izanen du.

Lehen fasean, bulegoak egonen dira. Bertan coworking espazioa, enpresa txiki-kientzat bulegoak, garapen agenteen bulegoak, formakuntza gela homologatua, bilera gelak eta info-energia bulegoa kokatuko dira.

Bestetik, obradore edo lantegi publi-

ko bat sortzea aurreikusten da: bertako produktuak modu legalean transformatu, paketatu eta kontserbatzeko azpiegitura publiko bat egonen da, eta bertako produktuei balio erantsi bat emanen zaie. Horretaz gain, produktuen komertzializazioa ere landuko da bulegoetatik.


### **PROIEKTUAREN GARAPENA**

2020. urtean, pandemiak eragindako lehen geldialdia proiektuaren egitura orokorra garatzeko baliatu zuten Leitzako Udaleko eta Cederna-Garalurreko ordezkariak.

2021. urtean, eskualde mailako parte-hartze prozesua gauzatu zen eta bertatik ateratako ondorioetan oinarrituz proiektu juridiko, ekonomiko eta tekniko zehatzak egin ziren. Guzti hori ordaindu ahal izateko, urte horretako Nafarroako Gobernuak aurrekontuetan 70.000 euroko dirulaguntza negoziatu eta adostu zuen EH Bildu taldeak.

Aurten, batetik, Leitzako Udalak, deialdi publiko bidez, lehen fasearekin lotutako bulegoen espazioa erosi zuen, Landa poligonoko Suizpi eraikinean. 760 metro karratuko espazio zabala da, 300.000 eurotan erosi zuena.





Eskualdeko ordezkariak Mimukai proiektuaren bideoaren aurkezpenean.

Bestetik, iaz bezala, aurtengo ekitaldirako EH Bilduk proposatutako emendakin berri bati esker, 175.000 euroko dirulaguntza baliatu da erositako bulegoan egin beharreko obrak, moldaketak, irisgarritasun neurriak eta ekipamendua erosteko.

Bulegoaren jabetza Leitzako Udalarrena bada ere, 2023. urtean horren ku-deaketa Cederna-Garalur elkartearen

esku jarriko da, alokairu kontratu baten bidez. Gainera, elkarte horrek dinamizatzaile bat jarriko du MIMUKAI zentroaren eskura, zeinak eskualdeko gainerako herrietan ere beste zentro batzuk sortzen eta saretzen lagunduko duen.

Gauzak horrela, datorren urteko martxoan MIMUKAI garapen eta transformazio zentroko lehen fasea martxan izatea espero da.

Bitartean, obradore edo lantegi publikoa izanen den bigarren faserako finantzaketa bilatzen jarraituko dute.

### **MIMUKAI, IKIGAI, UKIGAI**

Mimukai hitza, txertatutako arbolari ateratzen zaion lehen kimua adierazteko erabiltzen da.

Mimukai euskarazko hitza da, beraz, baina asko izan dira hitz japoniarra ematen zuela esan dutenak. Eta ez daude guztiz erratuta, bai baitu antzik. Japonieraz *IKIGAI* hitzak pertsona orok dugun xedea adierazten du, hau da, zertarako garen sortuak. Motibazioari buruzko adierazpena da, alegia.

Idea horri jarraiki, MIMUKAIren egitekoa izango da elkartutako pertsona eta baliabide guztiak uztartzea, ongi txertatzea eta emaitzetara, fruituetara, iristea. Lehen aipatutako abstrakzioetatik praktikara jaistea, hau da, eskualdeko tokiko garapena bultzatuko duten proiektu komunitario eta jasangarri berriak sortzea.

Horrela, laister, MIMUKAI, *ikigai* izatetik *ukigai* izatera igaroko da.

**Leitzako Udala**

# Jubiloteka: pintura zahar eta berriak mahai gainera ateratzean...

**A**tsegin da hona etortzea. Atsegin, Leitza Aranotik ia ordubetera egonda ere, zuengana astelehen goizetan etortzea...

Jubiloteka zerbitzua zer den azaltzeko behar zuen sarrera honek baina, utzi didaten tarte hau ez dut ariketa eta eragiketa artean emango.

Leitzarrak nituen birraitona eta birramona, leitzarra amona, eta leitzarretik zerbait izango dut nik ere, ezta? Ez da nire genealogia izango arrazoia. Ez dut uste behinik behin! Baina etxean bezala sentitzen naiz hiru orduko goiz hauetan zuen eskuzabaltasuna somatzean. Sartu orduko, astea nola joan den elkarki kontatzen diozuenean, zuen arteko harremana eta konplizitatea giroan barreiatuz.

Horko matematikak eta horko logika jolas bihurriak! Laberinto, asmakizun eta buruhaustek! Letra eta zenbaki artean larri, kantu eta bertso doinuetan igeri... Gorputza askatu, luzatu eta bildu. Erdoilak astindu eta animoa zaindu... Jubilotekan adiskideez gozatzen da eta denbora nola airean pasatzen den esanez ateratzen gara askotan! Eta etxean, pintura zahar eta berriak mahai gainera atera eta, margoak batzuetan eskas gelditzen zaizkizue nik atzeko aldean jarritako mandalak kolorez janzteko!

Carmenek itsasertzeko faroa atzean utzi eta globo bizietan nahiz beladun itsasontzietan urrutiko lurraldeak bisitatzer...

Julik inguruko lau hankeko lagun hanka markak behatzer...



Hona hemen, nire hitzen artean, zuek koloreztatutako mandaletako gutxi batzuk. Astez aste, artelan zoragarriak ikusteko aukera daukat, eta zuek ere egindako lanarekin harro etortzen zarete ikusteak, poza ematen du egia esan behar badizuet!

Zuen mandalak ikustean, irudimenak eramaten gaitu... lorez eta ostoz betetako jardín bihurrietara, kontuz jasotako lore bildumetara, patxadaren ikur izan daitekeen ur gaineko lore ederrera, bihotz eta erronboz apaindutako itsaso zabaletara, baratza kuttunetako kalabazak gure basoetako haritz eta gorosti ostoz biltzera, inguruko lau hankeko lagun hanka markak behatzera, gaueko eta eguneko hegaztiekin hegan egitera... baita itsasertzeko faroa atzean utzi eta globo bizieta nahiz beladun itsasontzietan urrutiko lurraldeak bisitatzera ere. Pentsa irudimenak nora garamatzen, batzuetan marrarik ez dagoen lekuan guk mandala sortzera ere eramaten gaituenean!

**Mari Josek (goikoa) eta Maitek (behekoa) eraman gaituzte bihotz eta erronboz apaindutako itsaso zabaletara... olatu desberdin bezain ederretara.**

Horko mandala batean idatzi nizuen, olatu horietako bakoitza desberdina dela, gu desberdinak garen bezalaxe. Jubilotekako familiak talde polita osatzen dugula gure desberdintasunean...

**Carmen Azpirozek gaueko eta eguneko hegaztiekin hegan egitera...**





Marisak eraman gaitu... lorez eta ostoz betetako jardin bihurrietara.



Saturek kontuz jasotako lore bildumetara...



Oroxik eraman gaitu... patxadaren ikur izan daitekeen ur gaineko lore ederrera.




Valerik baratza kuttunetako kalabazak gure basoetako haritz eta gorosti ostoz biltzera...



## Mandalak egiten...



Plantilla bat daukazu aurrean. Ausartzen al zara mandala bat sortzen?




**Pakita.** Pentsa irudimenak nora garamatzen, batzuetan marrarik ez dagoen lekuan guk mandala sortzera ere eramaten gaituenean! Hemen, Pakitak mandala soil batetik sortu duen guztia...

Eta zu, irakurle, animatzen al zara mandala bat egitera? Hartu arkatza eta iruditzen zaizun marra buelta guztian errepikatuz animatzen zaitut. Mandala soil hau zure irudimenarekin janztera...

Benetako plazerra da astelehen goizetako hiru orduko horiek zuekin konpartitzea!

**Ainhua Ansa**

# Dena debekatuta dago Leitzan!!



**G**aur egun ez, zorionez. Baina bali-teke garai batean horrelaxeko sent-sazioa izatea leitzarrek, udal ordenantzak irakurtzeko parada izanez gero. 1917. urteaz ari gara zehazki, eta garaiak oso bestelakoak ziren. Elizaren eta agintarien begirada zorrotzaren pean egin behar zuten bizimodua orduko leitzarrek, eta arau zorrotz eta estu askoak bete behar izaten zituzten.

Izanean zen, jakina, arau horiek bete gabe utziko zituenik, baina bere gain hartu beharko zuen harrapatua izateko

arriskua eta horrek ekar lezakeen zigorra.

Eta zer zen, zehazki, 1917an Leitzako Udalak argitaratutako ordenantza horrek debekatzen zuena? Bada, esate baterako, honako hauek:

**3. artikulua:** debekatuta dago madarikatzea eta Estatuaren Erljioarekin, Santuekin, Jainkoarekin edo gauza sakratuekin zerikusia duen oro hitzez edo ekintzez iraintzea.

Halaber, debekatuta daude ordenaren,

moralaren eta begirune publikoaren aurkako abestiak, keinuak edo bestelako ekintzak.

**4. artikulua:** debekatuta dago lotsagariak diren edo ohitura onen aurkakoak diren egoerak erakusten dituzten liburuak, irudiak, grabatuak edo fotografituak erakustea edo saltzea.

**5. artikulua:** erabat debekatuta dago kallean zozketak edo zorizko jokoak antolatzea.

**9. artikulua:** debekatuta dago kalean eta udaletxean eskean aritzea, baita elizako atarian edo beste edozein establezimendu publikotan ere.

Alkateak, nolana ere, bazuen bertako eskale kopuru jakin bati eskean aritzeko baimena emateko eskumena. Horretarako, pobreak zirela egiaztatu behar zuten, eta baimenaren agiria agerian eraman behar zuten.

**12. artikulua:** debekatuta dago jaiegunetan jendaurrean lan egitea, elikagaiak saltzen dituzten dendak izan ezik. Horiek 12:00ak arte lan egin dezakete, baina erakusleihoak itxita.

**13. artikulua:** lanaren ezaugarriengatik jaiegunetan lanean jarraitu behar izanez gero, Udaleko eta Elizako agintarien baimena beharko da.

**19. artikulua:** inauterietan ezin da moztorrorik erabili ilunabarretik aurrera.

Ezin da moztorrorik edo maskararik erabili tenpluetan, alorretan, tabernetan eta horien antzeko establezimenduetan.

Debekatuta dago erlijioaren ministroz moztortzea, baita klausuran dauden haietaz, funtzionario publikoz edo militarrez.

Inork ezin dio moztortutako bati maskara kendu, ezta kentzera behartu edo haren izena zein den ahots goran esan ere.

**30. artikulua:** debekatuta dago mozko-rreri eta 15 urtetik beherakoei alkohola saltzea.

**37. artikulua:** debekatuta dago balkoietako eta leihoetako loreontziak eta landareak ureztatzea, ura kalera eroriz gero.

**38. artikulua:** debekatuta dago etxeetako balkoi, leiho eta beheko solairuetatik

alfonbrak, arropak eta bestelako objektuak astintzea goizeko 8etatik aurrera eta urte osoan zehar.

Udal ordenantzak, nolana ere, debekuz gainera, beste hamaika gauza ere arautzen eta agintzen zituen. Arautzen zituen arloak zein diren erakusten digu ordenantzaren egiturak berak. Hauxe da:

\* Ordenantza gaztelania hutsez dago. Hemen euskaraz emanen ditugunak jatorrizkoan gaztelaniaz daude.

**LEHENDABIZIKO TITULUA.** Ordena eta gobernu ona.

1. Kapituluak: administrazio-erregimena
2. Kapituluak: moralitate publikoa
3. Kapituluak: jai erlijiosoak
4. Jai herrikoiak eta ikuskizun publikoak
5. Establezimendu publikoak
6. Ordena espazio publikoan
7. Hezkuntza publikoa

**BIGARREN TITULUA**

1. Kapituluak: segurtasun pertsonala
2. Kapituluak: hondatutako eraikinak
3. Kapituluak: kebideen garbiketa
4. Kapituluak: ibilgailuak eta zamariak

**HIRUGARREN TITULUA:** osasuna

1. Kapituluak: garbitasuna eta osasuna
2. Kapituluak: komunak eta ur beltzen hustubidea
3. Ukuiluak
4. Gaitz kutsagarriak eta epidemikoak
5. Errekak
6. Iturriak eta askak

**LAUGARREN TITULUA:** elikagaiak

1. Kapituluak: xedapen orokorrak
2. Kapituluak: abereak hiltzea
3. Kapituluak: ogia egin eta saltzea
4. Kapituluak: likidoak

**BOSGARREN TITULUA:** espazio publikoa  
apaintzea eta zaintzea  
Kapitulu bakarra

**SEIGARREN TITULUA:** zigorrak  
Kapitulu bakarra

Jakin-mina duenari dokumentu osoa irakurtzeko gomendatzen diogu, baina horretara iritsiko ez denarentzat aipamen batzuk ekarri ditugu hona, ordenantzaren edukien erakusgarri:

**24. artikulua:** herritarrak denbora pasatzeko eta dibertitzeko elkartzan diren tokiak gaueko 9etarako itxi behar dira irailaren 15etik maiatzaren 3a arte, eta gaueko 10etarako gainerako hilabetetan.

**41. artikulua:** haurren gurasoen edo tutoreen ardura da haurrak eskolara joatea, 6 eta 12 urte bitartean gutxienez. Arau horri huts egiteagatik ohartarazpena jaso eta, hala ere, berdin jarraitzen badute, bost pezetako isuna ezarriko zaie.

Aipatutako adin horretan dagoen haurren bat kalean edo herriko beste tokiren batean abandonaturik aurkituz gero, egunez nahiz gauez, Alkatearen agenteek hura hartu eta etxera eramanez dute berehala, gurasoengana. Agenteek ohar batean jasoko dituzte haurren izen-abizenak eta helbidea, ondoren gurasoek dagokien zigorra jaso dezaten.

**77. artikulua:** eskolatan ez dira txertatu gabeko haurrak onartuko, ezta buruan bistarako nazkagarriak diren gaitzak dituztenak ere. Halaber, gaixotasun infekziosoak pasa dituztenak ezin dira eskolara joan gaitza sendatu eta bi hilabete pasa arte.

**106. artikulua:** eraikinetako fatxadak garbi mantendu behar dira eta, horretarako, Alkateak hala eskatzen dienean, eraikinen jabeek luzitu eta zuritu egiten dituzte. Emandako epean egiten ez badute, Udalak egiten du eta haiek ordaindu.

**H**ika eta toka. Noka ere toka! liburu argitaratu du ALKE kultur taldeak Leitzako hitanoa edo hiketakoa jorratzeko.

Fernando Oiartzun Sagastibeltzak gidatu du hiketan ikasteko eta gure herria hobeki ezagutzeko auzolanean egindako liburua

Adituak aspaldi esaten ari zaizkigu hikako tratamendua gainbehera doala euskararen lurralde guztietan. Horren ondorioz, zenbait herritan (Zumaia, Azkoitia, Oñati...) gai hori landu dute azken urteotan. Leitzan ere bada hiketako erregistroa berreskuratzeko gogo duen jendea. Eta duela 10 urte, Kultur taldeak lekukoa hartu zuen eta hitanoa aztertzeari gogotsu ekin.

Kultur taldearen lanketa horren emaitzak, liburu formatuan, aukera emanen digu, aurrerantzean, herriko hiketako moldea edozeinek ikasteko eta lantzeko modua izateko; ez dakitenentzat, edo dakitena osatu nahi dutenentzat, neskekin eta mutilekin hika egiteko.

Argitaratu berri den Liburuan Leitzako hika mintzamoldea txukun-txukun bildu da. Eta erabilera egokirako alderdia ere jorratu da. Marko teoriko labur eta erraz baten bidez, noiz, nola, non, norekin egin behar den hiketan jakin daiteke. Lan hori, gainera, aditu batzuek ere gainbegiratu dute eta lagundu dute emaitza hobea eta osoagoa izan dadin.

Arestian esan bezala, azkeneko hamarkadetan Euskal Herri osoan erregistroak gainbehera doaz. Hiketan aritzen direnak gero eta gutxiago dira. Herri askotan desagertu ere egin da, edo noka bederen bai: galerarik handiena noka edo neskekiko erregistroan gertatzen ari baitzaigu. Hika bizirik dagoen herrietan noka askoz gutxiago aritzen dira, eta toka, mutilekiko erregistroan, gero eta okerrago.

Leitzan antzera gertatu zaigu: aspaldi noka hori entzun ere ez da egiten, ia-ia galdutzat jotzen genuen. Eta mutilena gehiago entzun arren, 50 urtez

# Hika eta toka. Noka ere toka!

Hika eta toka.  
Noka ere toka!

*Hiketan ikasteko eta gure herria hobeki ezagutzeko  
auzolanean egindako liburua*



Fernando Oiartzun Sagastibeltza

beherakoen artean, gero eta gutxiago eta okerrago egiten da. Alabaina, gure harridurarako, badira hiketan ederki egiten duten emakumeak, baita noka dakiten gizonak ere.

Hala, uste genuena baina hobea da egoera Leitzan. Eta guk hurbilean ditu-

gun hiztun batzuk hartu ditugu, 20 bat lagun, gizon-emakume, eta elkarrizketa eta grabazioen bidez, ordu asko emanda, erabilera zertan den jorratu dugu. Horretaz gain, aditz-bilduma osoa egin dugu Leitzako moldean: noka eta toka. Bilduma hori, gainera, testuinguruan



egin dugu: aditzak hiztunek esan bezala jaso ditugu esaldi eta kontakizun errealetan kokatuak, erabiltzen diren bezala irakurtzeko eran izan ditzazun, “*leitze-ko*” moldean.

Bestalde, argitalpen honekin gauza asko ikasi ahalko dituzu, 80 kontakizun bildu baitira bertan. Kontakizun horiek guziak ere oso interesgarriak dira; jo-

rratu diren gaiak ez baitira ahuntzaren gauerdiko eztula. Ez horixe! Hona hemen zein gai jorratu diren: garai bateko bizimodua, haurtzaroa, auzolana, arbasoen sinesmenak, sorgin eta jentil kontuak, botika zaharrak eta sendabelarrak, emakumeen bizimodu latza, suaren inguruko erritualak, gerraren ondorio bortitzak, gaur egungo egoera eta gaiak...

*Hika eta toka. Noka ere toka!* liburua irakurriz gozatu zaitezzen nahi dugu; eta bidenabar, gure herria hobeki ezagutu dezazun, arbasoengandik asko baitugu ikasteko. Opari ederra utzi digute guk elkarrizketatu ditugun herritar horiek guziek: haien bizipenak eta jakinduria eskaini baitizkigute, denon esku paratu.

**ALKE kultur taldea**

**Amaitzeko, liburuan landu diren aditz batzuk dauzkazu hemen jarraian, bertan dauden hurrenkeran paratuak: zuka, noka eta toka. Ohikoenak edo direnak paratu ditugu hiketako aditzak ikasten eta erabiltzen has zaitezzen, nahi baduzu.**

**Honatx:**

Zuka	noka / toka	Zuka	noka / toka
naiz	nan / nak	nitzen	ninddunen / nindduen - hitzen
za	haiz	ziñen	huen
da	don / dok	zen	giñuzenen / giñuzen
gaa	gatton / gattok	giñen	hittuen
die	ditton / dittok	zien	
zat	zitziñen / zitziñek	zitziñen	zitzeidenen / zitzeiden-
zatzo	zan / zak	Zitzizion	zitziñenen / zitziñen
zaio	zitziñon / zitziñok	Zitziñon	zitziñonen / zitziñeoan
zau	zitziñiun / zitziñiuk	Zitziñiun	zitziñiunen / zitziñiuen
zaioa	zitziñioa / zitziñioea	Zitziñioan	zitziñionen / zitziñioan
dot	diñet / dit	dittot	zetiñet / zetit
dozo	don / dok	dittozo	ditton / dittok
do	din / dik	ditto	zetin / zetik
duu	diñu / diu	zattu	zetiñu / zetiñu
due	diñea / die	dittue	zetiñea / zetiñe
nun	niñenen / nien	nittun	netiñenen / netien
ziñun	huen		ziñuzen / ziñozen / hittuen
zun	ziñenen / zien	zittun	zetiñenen / zetiñen
giñun	giñenen / giñien	giñuzen	giñetiñenen / giñetiñen
zuen	ziñenen / zien	zittuen	zetiñenen / zetiñen
nazo	nan / nak	zattot	hat
nao	neon / neok	zatto	hao
naudea	neonea / neokea	zattuu	hau
		zattue	hauea
diezo	dien / diek	Dazkiezo	dazkien / dazkiek
dit	zeiden / zeidek	dazkitt	zezkiden / zezkidek
dizot	diñet / dit	Dazkizot	dazkiñet / dazkit
dizo	din / dik	dazkitzo	dazkin / dazkik
dizuu	diñu / diu	dazkitzu	dazkiñu / dazkiñu
dizue	diñea / die	dazkitzue	dazkiñea / dazkiñe
diot	zeonet / zeioat	dazkizot	zezkionet / zezkioat
diozo	dion / diok		-
dio	zeion / zeioak	dazkiozo	dazkion / dazkiok
		dazkio	zezkion / zezkiok

*Apa, hi, anima hai!*

*Aditz gutxi batzuk yakinde, aski don hike itteko.*

*Zer dion? Nola ba?*

*Baietz, ba. Hik e in tzan, hiketan!*

*Bueno, saiatuko nan!*

# Pantailak euskaraz

**P**antailek gure eguneroko bizitzan hartu duten pisua azaldu beharrik ez dago. Bistakoa da, eta egunetik egunera handitzen doala ematen du. Makina bat ordu ematen ditugu pantailen aurrean: telebistari, ordenagailuari, tabletari eta, bereziki, telefonoari begira. Badago, noski, pantailen diktadura horri ihes egiten saiatzen denik, baina gaur egun gehientsuenok, gutxi asko, denbora dezente ematen dugu horiei begira.

Begiratzen ditugunean irudi asko ikusten dugu, noski, baina baita letrak eta audioak ere. Eta horiek, jakina, hizkuntza jakin batean etorriko zaizkigu, informazio horrek guztiak hizkuntzaren bitartekaritza behar baitu.

Eta zein da, gure gailu horietan, hizkuntza nagusia gaur egun? Bada, erantzuna erraza da: gaztelania. Euskara ere iristen zaigu pantailetatik, noski, ingeles dezente ere bai ziur asko, baina gurean gaztelania da nagusi, alde handiz.

Gure arteko mezu trukean ari garenean bestelakoa izanen da egoera ziur asko, alegia, Whatsapp edo Telegram bidez elkarrekin ari garenean, edo posta elektronikoz elkarri mezuak bidaltzen, etxean edo kalean bezala euskara izanen da hizkuntza nagusia eta ohikoena.

Baina gure harreman sare hurbiletik atera orduko, eta batez ere hartzaile-funtzioa jokatzeko dugunean, orduan gaztelania gailentzen zaigu indar handiz:



telebistako programazioa, serieak edo telesailak ikusteko erabiltzen diren plataforma digitalak, Youtube, Twitter eta Tik-Tok bezalako sare sozialak... Horietan denetan gaztelaniazko edukiak nagusitzen dira eta sekulako oldea osatzen dute, euskara bezalako hizkuntza gutxituak oso bazter utzita.

Horrek, jakina, eragina dauka. Alegia, gure bizitzako hainbat eta hainbat ordu "gaztelaniaz bizitzen" ematen ditugu, eta gaztelaniak presentzia gero eta zabalagoa dauka gure egunerokoan. Ez zaigu ho-

rregatik ilea eroriko edo hortzak horituko, baina, bistan denez, gaztelaniak bereganatzen duen toki hori guztia euskarak galduko du. Eta pantaila aurrean ez gaudenean egiten dugun euskararen erabilera ere eragina izan dezake eta badu.

Pantailatan gertatzen ari zaigun horren adierazle argia da gure eskualdeko ikasketxeetan UEMAk egindako ikerketatxoa, aurten ezagutarazi dena. Ikerketa horrek argi asko erakusten du gaztelaniak pantailatan duen nagusitasuna. Honatx, lagin gisa, datu horietako batzuk:

## SERIEEN HIZKUNTZA:

Zein hizkuntzatan ikusi duten azkeneko telesaila edo marrazki biziduna galdetu zitzaizen Amazabal Institututuko ikasleei. Hauxe izan zen erantzuna:

Euskara	Gaztelania	Ingelesa	Beste bat	Ez dut ikusten
% 13,8	63,9	% 10,3	% 1,7	% 10,3

Erletako ikasleei galdera bera eginda, hauxe erantzuna:

Euskara	Gaztelania	Ingelesa	Beste bat	Ez dut ikusten
% 21,0	% 75,0	% 2,0	% 1,0	% 1,0

**YOUTUBE:**

Eta zein hizkuntzatan ikusten dituzte, nagusiki, Youtubeko bideoak Institutuko ikasleek?

Bada, jasotako erantzunen arabera:

Batez ere euskaraz	Batez ere gaztelaniaz	Batez ere ingelesez	Berdintsu euskaraz eta gaztelaniaz	Berdintsu euskaraz eta ingelesez	Berdintsu ingelesez eta gaztelaniaz	Ez du Youtube erabiltzen
% 5,2	% 62,1	% 1,7	% 17,2	% 1,7	% 8,6	% 3,4

Erleta eskolako erantzuna, berriz, honakoa:

Batez ere euskaraz	Batez ere gaztelaniaz	Batez ere ingelesez	Berdintsu euskaraz eta gaztelaniaz	Berdintsu euskaraz eta ingelesez	Berdintsu ingelesez eta gaztelaniaz	Ez du Youtube erabiltzen
% 10,0	% 58,0	% 4,0	% 14,0	% 1,0	% 2,0	% 11,0

**TIKTOK:**

TikTok sare sozialeko bideoak honela ikusten dituzte Amazabaleko ikasleek:

Batez ere euskaraz	Batez ere gaztelaniaz	Batez ere ingelesez	Berdintsu euskaraz eta gaztelaniaz	Berdintsu euskaraz eta ingelesez	Berdintsu ingelesez eta gaztelaniaz	Ez du TikTok erabiltzen
% 0,0	% 55,1	% 5,2	% 1,7	% 1,7	% 6,9	% 29,3

Egindako inkesta horrek datu gehiago jaso zituen, hau lagin bat besterik ez da izan, baina gainerako galderak aintzat hartuta ere (Twitch, Instagram, telebista, musika, bideo-jokoak...) ondorio nagusia argia da: gaztelania da nagusi, erabat, pantailen aurrean.

Haur eta gazte horiek guztiak euskaldunak dira, eta euskara da gehien-gehien hizkuntza nagusia etxean, kalean, lagunartean eta ikasketetan, baina pantaila aurrean jartzen direnean gauzak erabat aldatzen dira, eta hortik jasotzen dutena nagusiki gaztelaniazko edukia da.

Inkesta haur eta gazteen artean egin zen baina, zalantzarik gabe, ondorio berbera aterako genuke helduen artean eginda ere.

**ETA HORREN AURREAN, ZER?**

Horixe da panorama, beraz, pantailei dagokionez. Euskararen ikuspuntutik kezagarria, argi dagoenez. Eta horren aurrean, zer? Bada, bi ideia, labur azaldua: alde batetik, ahalegin handia egin beharko da, eta batzuk horretan ari dira

dagoeneko, pantailen bitartez jasotzen dugun eskaintza horretan euskarari toki egiteko.

Eta, bestetik, pantailek eskaintakoa dena delakoa izanda, gaur dugunarekin edo ahalegin handi horren bitartez lortuko dugunarekin, dagoen aukera baliatu eta dagoen hori ere bilatu eta erabili behar dugu. Alegia, ahalegina egin beharko dugu erdarazko eskaintzaren itsaso horren ondoan dagoen euskarazko eskaintza ere ezagutzen eta baliatzen.

Bi bide horiek bultzatzen ari da azkenaldian sortu den Pantailetan Euskaraz ekimena ([www.pantailakeuskaraz.eus](http://www.pantailakeuskaraz.eus)). Alde batetik, erakundeei eta bestelako eragileei edukiak euskaraz sortu eta zabal ditzaten eskatzen die, horretarako proposamen zehatzak eginez: euskarazko ikus-entzunezko sektorea diruz laguntzea; Euskal Irrati Telebista indartzea eta euskararen normalizaziorako tresna bihurtzea; euskarazko streaming plataforma bat sortzea; streaming plataforma nagusietan euskararen presentzia handitzea eta bermatzea; zinemaren lege propioak sortzea; bideo-jokoetan

euskararen erabilera bermatzea eta sustatzea; Espainiar eta Frantziar kate publikoek euskarazko edukiak eskaintzea...

Eta, bestetik, dagoen eskaintza hori erakusten saiatzen da, euskaldunok ere bali dezagun. Eskaintza hori ezagutarazteko eta erabilgarri egiteko, esate baterako, ZER NON IKUSI atala sortu dute beren webgunean, eta bertatik eskuratu daitezke euskarazko hainbat eduki: filmak, telesailak, dokumentalak, haurrentzako edukiak, euskaraz azpizatitakoak, ikastetxeetarako edukiak, plataformetako edukiak (NETFLIX, Youtube, Filmin, HBOmax, ARGIA, Kanaldude, Vimeo...)... NON ZER IKUSI atal horretatik aise iritsi gaitzke euskarazko edukietara, eta dagoenaz gozatu.

Pantailek espazio garrantzitsua osatzen dute gaur egun gure eguneroko bizitzan, ez dago zalantzarik, eta, horrenbestez, euskararentzat irabazi beharreko beste espazio bat dira. Dagoenetik hasita, eta gero eta toki gehiago eginez.

# BAIETZ ASMATU!

**B**alikebale lehiaketak jokatutako azkeneko edizioan, finalera iritsitako bi taldeek 10 galdera erantzun behar izan zituzten, haien jakinduria erakusteko eta, bide batez, lehiaketako saria eramateko.

Zuk, irakurle horrek, 10ak ongi erantzunda ere ez duzu horregatik saririk jasoko, baina asmatzeak dakarren poza ere ez da nolana hiko gauza, eta zure herria ongi ezagutzen duzula jakiteak ere zure egoa puzten lagunduko dizu.

Eta lasai egon, uste baino gutxiago asmatzen badituzu ere, badakizu ikasteko garaia ez dela inoiz bukatzen eta pixka bat saiatuz gero Leitzako hobeki ezagutzeko aukera izan baduzula. Eutsi horri!



## Galdetegia:

- 1.- Nola deitzen zaio linua orrazteko eta garbitzeko erabiltzen zen lanabesari?
  - a) Txarrantxe
  - b) Garba
  - c) Gabi
- 2.- Garai batean oro har alkoholdun edariari (koñaka, whiskie...) honela esaten zitzaion:
  - a) Itziki
  - b) Abardinta
  - c) Pitar
- 3.- Nola esaten zaio zerri emeari jaio berritan?
  - a) Apote
  - b) Ardi
  - c) Bargo
- 4.- Zein da Aroa Huartek euskaratutako *Erle langileen amodioak* liburuaren jatorrizko hizkuntza?
  - a) Errusiera
  - b) Katalana
  - c) Frantsesa
- 5.- Zein txistularirengandik jaso zen lehenbiziko aldiz Leitzako ingurutxo?
  - a) Miel Antonio Barriola
  - b) Angel Alduntzin
  - c) Ebaristo Elduaen
- 6.- Rock talde hauetatik bat ez zen Leitzakoa. Zein?
  - a) Laukitik ihes
  - b) Belek
  - c) Derrame vaginal
- 7.- Zein mendetako da Leitzako elizako kanpandorea?
  - a) XVII. mendekoa
  - b) XVIII. mendekoa
  - c) XIX. mendekoa
- 8.- Euskal Herria Mendi Erronkaren zenbatgarren edizioa izanen da 2022. urtekoa?
  - a) 6.a
  - b) 7.a
  - c) 8.a
- 9.- Zenbat eserleku ditu Leitzako Herri Aretoak?
  - a) 222
  - b) 254
  - c) 275
- 10.- Ikerlari leitzar batek bere doktorego-tesia bujarreko minbiziaren metastasiaren inguruan egin zuen. Nork?
  - a) Naiara Perurenak
  - b) Nerea Zabaletak
  - c) Juanjo Lasartek